

Hilerria (Abadiño)

1811ko Domu Santu egunean, Espainian derrigorrezko egin zen hilotzak *extra ecclesiam* lurperatzea. Hala eta guztiz ere, legea ez zen berehala bete, urte askotan modernitate eta garbitasuna aldarrikatzen zituzten arrazoiak alferrikakoak izan zirela.

Azkenean ezarri zen arauari zor diogu Bizkaiko hilerri atarikodunen formula ederra, izen hori hartzen dutelarik beren egitura ia herrialdekoa berezkoa delako. Oso ederra eta funtzionala, arkupeuz inguratutako lorategi eremuak planteatzean datza, non hilobiak estalpe soil batez babesten diren.

Abadiñoako hilerria, San Trokaz elizari uztartuta, herrialdeko ondareari ekarpen interesgarria egiten dion esparru noblea da, berezko duen kalitateagatik ezezik, arestian aipatu dugun nortasun handiko nekropoli familia oso horren barruan kokatzen delako ere.

Zutoinezko atariko definitutako esparru angeluzuzena da. Zutabeok, orden toskanarra eta kare harrizkoak, harrizko taulamenduei eusten diete, itxiduraren hormen laguntzaz. Teilapeak egun aldatuak ditu igeltsuzko sabaizunez. Hilobiak zoladuran sartuta daude -lurperatze hilobiak-, denak berdinak.

Halaber, hormen arteko lau espazioak irizpide berdintzaileaz planteatuta daude, hobirentzako inolako preferentziatzako


lekurik gorde barik. Kapera bera ere tolestu egiten da galeriari buruz eta espazio karratua da, hondoan zentratua, altueran hilerriaren gainekoa gainditzen duena.

Alderdi honek sarbide axial bat dauka kaperarekin lerrotatua, garaipen-arkuaren aldaera neoklasikoa nahiko egokia. Zabaltzen zaion kanpo aldeko itxidura noblea da, harlandua erabiltzen duelako. Horma honetan eta atarikoaren taulamenduan hileta inskripzioak grabatuta daude, hildakoen mezu izugarriak biziek bizitza honi buruz eta gero espero dutenaren gainean hausnar dezaten.

Abadiñoako nekropolia estilo neoklasikoz argituta dago aldaera oso aurreratu eta helduaz, zein, denboraren aldetik, erromantikotzat ere har daitekeen. Izan ere, hainbat agiritan agertzen denez, Rafael de Zabala elorriotarrak proiektatu eta marraztu egin zuen 1854an, XIX. gizaldiko bigarren laurdeneko arkitektura figura garrantzitsua zena. Durangoko maisu batek, Pedro Jose Astarbek, iradokizun zenbait egin zizkion proiektuari, azkenean bikain gelditu zelarik.

Bizkaian izan dira eta badira *hilerri atarikodunen* hainbat adibide, hala nola San Franciscokoa eta Mallonakoa Bilbon, Markina-Xemeinen, Gernika eta Elorrion.

Testua: José Ángel Barrio Loza.



Abadiñoako hilerria

Abadiño. (*San Trokaz plaza*).

Bisitak egiteko ordutegia:

Edozein ordutan bisita daiteke.

Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

(*Abadiño*)

- San Trokaz eliza.
- Abadiñoako dorretxe-jauregia.
- Muntzaraz jauregia.
- Zeletabe jauregia.
- Traña jauregia.

